

PRENTSA OHARRA

AMURRIOK, LANDA INGURUKO EGUNEKO ARRETA ZENTRO BAT ERAIKITZEA ETA ERAIKIN BAT GIZARTE ETA KULTURA ZENTRO GISA EGOKITZEA ESKATU DU FORU PLANEAN

- **Proposatutako jarduketak Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzu Foru Planaren 2020-2021 programaren barruan daude.**

Amurrión, 2019ko maiatzaren 16an. Amurrioko Udaleko osokoak, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzu Foru Planaren 2020-2021 programaren barruan bi lan egiteko laguntza eskaria onetsi du. Proposatutako jarduketaren barruan, Landa Inguruko Eguneko Arretako Zentro (LEAZ-CRAD) bat eraikitzea eta Forua kaleko 9ko eraikina gizarte eta kultura zentro gisa egokitzea daude.

Mendiko kolean Landa Inguruko Eguneko Arretako Zentroa eraikiz, udaleko gizarte zerbitzuetatik eskatzen diren beharrak bete nahi dira. Zentro berriak, gaur egun dauden 15ak baino plaza gehiago izango lituzke.

Obra hori egiteko aurrekontua 1.067.620,30 eurokoa da, eta egikaritze epea urtebetekoa da.

Aldundiaren laguntza eskatu den bigarren lanak, Forua kaleko eraikina zentro soziokultural gisa egokitzea planteatzen du. 1976an udal azoka gisa eraiki zen, eta hainbat urte erabili gabe igaro ondoren, egokitzea aurreikusten da, zenbait erabilera izango dituen gunen anitz gisa, azokak, erakusketak, jokoak edo kontzertuak, besteak beste. Horren ondorioz, une honetan aparkalekua den ingurunea urbanizatu egin ahal izango litzateke.

Obrak 894.770,58 euroko inbertsioa eskatuko luke, eta egikaritze epea urtebetekoa da.